

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

3399

EBAZPENA, 2026ko uztailaren 15ekoa, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, zeinaren bidez arautzen baita Hezkuntzako sailburuaren 2025eko otsailaren 24ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduretan hautatutako izangaien praktika-fasea. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozedurak iragarri ziren.

Hezkuntzako sailburuaren 2025eko otsailaren 24ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduretan hautatutako izangaiak praktika-fasea egin behar dute, eta praktiketako funtzionario izendatu behar dira Hezkuntzako sailburuaren agindu bidez.

2025eko otsailaren 24ko Agindu horrek berak IX. kapituluan ezartzen ditu erregulazio honen xede den praktika-faseari aplikatu beharreko oinarrizko baldintzak, eta Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea gaitzen du horretarako.

Hezkuntzako sailburuaren 2026ko uztailaren 9ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko praktiketako funtzionario izendatu dira aipatutako prozeduran hautatutako izangaiak.

Beraz, bidezkoa da praktika-fasea arautzea, iraupena eta baldintzak zehaztea, Kalifikazio-batzordearen eta esku hartzen duten gainerako eragileen osaera eta eskumenak definitzea, eta ebaluatzeko prozedurak eta irizpideak ezartzea.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Kalifikazio-batzordea.

1.1.— Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, EAE) Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan praktiketako funtzionario izendatutako pertsonak egindako praktikak Kalifikazio-batzordeak kalifikatuko ditu. Batzorde horren osaera jarraian ezarriko da.

1.2.— EAEn Kalifikazio-batzorde bakarra eratzen da, eta honako hauek osatuko dute:

- Alicia Epelde Murguia andrea, Hezkuntzako ikuskaria, batzordeburua izango da.
- Maite Lizartza Urrestarazu andrea, Hezkuntzako ikuskaria, batzordekide izango da.
- Mikel Amezaga Amezua jauna, Hezkuntzako ikuskaria, batzordekidea izango da.
- Maria Cruz Delgado Salmerón andrea, Hezkuntzako ikuskaria, batzordekide izango da.

Kideren bat absente edo gaixorik badago, Langileak Kudeatzeko zuzendariak izendatutako beste hezkuntza-ikuskari batek ordezkatu ahal izango du, ikuskari nagusiak proposatuta.

1.3.— Kalifikazio-batzordeko kideak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako abstentzio- eta errekusazio-kausen eraginpean egongo dira.

1.4.– Kalifikazio-batzorde bakarra formalki eratu beharko da 5 egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eraketa hori ezin izango da gauzatu kide guztiak bertan ez badaude, salbu eta Langileak Kudeatzeko zuzendaria balioetsi beharreko inguruabar bereziak gertatzen badira. Eratze-egintzaren akta egingo da, eta Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari bidaliko zaio.

1.5.– Kalifikazio-batzordeak, bere eginkizunak betetzean, hala behar izanez gero, hezkuntza-ikuskaritzako lantaldeen laguntza eskatu ahal izango du. Lantalde horiek irakasleen funtzioa ebaluatzearekin lotuta egongo dira. Halaber, izangaiek praktika-fasea zer ikastetxetan garatzen duten, ikastetxe horietako erreferentziako ikuskarien laguntza ere eskatu ahal izango du kalifikazio-batzordeak, baita Hezkuntzako Administrazio Publikoko gainerako zerbitzuena ere.

1.6.– Zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan aurreikusitakoa aplikatuko zaio Kalifikazio-batzordeari.

Bigarrena.– Praktika-fasearen tutoretza.

2.1.– Praktiketako funtzionarioek praktikaldia irakasle tutore batek gainbegiratuta egingo dute. Destinoko ikastetxeko zuzendaritzak izendatuko du irakasle tutore hori, praktikaldia arautzen duten jarraibideek ezarritako epearen barruan, eta berehala jakinaraziko zaio Kalifikazio-batzordeari, dagokion erreferentziazko ikuskatzailearen bidez. Irakasle horiek ikastetxean destinoa duten karrerako funtzionarioen artetik aukeratuko dira.

2.2.– Praktiketako funtzionarioen irakasle tutoreen izendapenari dagokionez, aparteko, aurreikusi gabeko edo gerora sortutako inguruabar guztiak berehala jakinarazi beharko zaizkio erreferentziazko ikuskariari, Kalifikazio-batzordeari helaraz diezazkion. Batzordeak, azken buruan, ahalik eta lasterren ebatziko du, kasuaren inguruabar zehatzen, ikastetxearen benetako aukeren eta azkenean izendatutako pertsonaren egokitasunaren arabera. Nolanahi ere, karrerako funtzionario izan beharko du.

2.3.– Praktiketako fasean, irakasle tutoreen eginkizunak izango dira praktiketako funtzionarioei aholkuak ematea, laguntzea eta ebaluatzea, besteak beste, honako alderdi hauei buruz:

- Irakaskuntza-jardueraren plangintza.
- Irakaskuntza-jardueraren garapena.
- Ikasleak ebaluatzeko prozedurak eta irizpideak.
- Koordinazio didaktikoa.
- Tutoretza- eta orientazio-planak.
- Hezkuntza-premia espezifikoak, hezkuntza inklusiboa eta aniztasunarekiko arreta.
- Familiekiko harremanak, ikasle adingabeen kasuan.

2.4.– Ikastetxeko zuzendaritzak bermatu beharko du irakasle tutoreak gutxienez hiru aldiz bisitatuko duela praktiketako funtzionarioaren ikasgela, prestakuntza-behaketa edo irakas-kuntza-jardueraren eredia egiteko, horri buruzko hausnarketa sustatzeko, hobetzeko orientabideak proposatzeko eta ebidentziak biltzeko azken ebaluazioa egite aldera. Bisitak prozesuaren hasierako faseari, garapenari eta amaierari lotuta egongo dira.

2.5.– Praktikaldia amaitzean, tutoretza-lanak egin dituzten irakasleek txosten bat egingo dute, izangaiek egindako lanari buruz ebazpen honen eranskinean agertzen diren alderdiei buruz. Horri

erantsiko zaio tutoreak praktiketako funtzionarioaren gelara egindako bisiten ondorioen dokumentua, edo horri buruzko informazio garrantzitsuak egiaztatzen dituen beste edozein.

2.6.– Beharrezkoa izanez gero, ikastetxe bakoitzaren aukera eta beharrian zehatzen, irakasle-plantillaren eta administrazio-egoeraren arabera, irakasle berak aldi berean egin ahal izango ditu praktiketako funtzionario baten baino gehiagoren tutoretza-lanak.

Hirugarrena.– Zuzendariaren eginkizunak.

3.1.– Praktika-fasean zehar, ikastetxeko zuzendariak praktiketako funtzionarioei aholkuak eta informazioa emango dizkie, besteak beste, honako alderdi hauei buruz:

- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua.
- Ikastetxearen Urteko Plana eta Urteko Memoria.
- AJA eta Bizikidetza Plana.
- Ikastetxearen proiektuak eta jarduera-protokoloak.
- Gobernu-organoen eta koordinazio didaktikoaren funtzionamendua.
- Hezkuntza-komunitatean parte hartzea.

3.2.– Ikastetxeko zuzendariak, halaber, praktiketako funtzionarioaren gela bisitatu ahal izango du, azken ebaluazioa egiteko ebidentziak jasotzeko.

3.3.– Praktikaldia amaitzean, ikastetxeko zuzendariak txosten bat egingo du, ebazpen honen eranskinean agertzen diren alderdien gainean izangaiak egindako lana ebaluatzeko. Txosten horrekin batera, ondorio horietarako garrantzitsutzat jotzen dituen jarduketa espezifikoaren edo informazio osagarrien egiaztatzeak aurkeztuko ditu.

3.4.– Zuzendariak unean-unean jakinarazi beharko dio Hezkuntza Ikuskaritzari, erreferentziazko ikuskatzailearen bidez, ezagutzen duen edozein gorabehera edo inguruabar, baldin eta, haren ustez, eragina izan badezake ikastetxean destinoa duten praktiketako funtzionarioen praktika-fasearen garapenean eta ebaluazioan, eta, halakoetan, Ikuskaritzaren edo administrazio eskudunaren beste edozein instantziaren esku-hartze espezifiko eskatu beharko du.

Laugarrena.– Hezkuntza-ikuskaritzaren eginkizunak.

4.1.– Izangaiaren praktikaldiko ikastetxearen erreferentziazko ikuskariak lagundu, aholkatu eta gainbegiratu du praktiketako irakasle funtzionarioen ebaluazio-prozesua, ezarritako prozeduren arabera, eta, besteak beste, honako alderdi hauek hartuko ditu kontuan:

- Praktika-fasean aplikatu beharreko araudiari buruzko aholkularitza ematea.
- Irakasle tutorearen izendapena ikus-onestea.
- Praktika-faseko ebaluazio-prozedurei, -irizpideei eta -dokumentuei buruzko aholkularitza ematea.
- Kalifikazio-batzordeari jakinaraztea ezohiko edozein inguruabar, eragina izan dezakeen heinean praktika-fasea behar bezala garatzeko edo esleitutako zentroetan destinoa duten praktiketako funtzionarioen ebaluazio-prozesurako.
- Ofiziozko zuzeneko esku-hartze espezifiko egitea Kalifikazio-batzordeak eskatutako kasuetan edo ikastetxeko zuzendaritzak eskatuta, 3.4 puntuan ezarritakoaren arabera.

- Gainbegiratzen dituen ikastetxeetako irakasle tutoreak eta zuzendariak egindako ebaluazio-txostenen azken txosten ikus-onetsia aintzat hartzea.

- Txosten espezifikoa egitea, edozein arrazoirengatik zuzeneko esku-hartzea behar izan den kasuetan.

Bosgarrena.– Praktika-fasea ebaluatzea.

5.1.– Izangaien azken ebaluazioa Kalifikazio-batzordeak egingo du, honako hauek oinarri hartuta:

- Ikastetxeko zuzendariak eta irakasle tutoreak egindako txostenak eta haiei erantsitako dokumentazioa eta erreferentziazko ikuskariaren txosten ikus-onetsia.

- Tutoreak eta zuzendariak praktiketako funtzionarioaren gelara egindako bisiten erregistroa, eta horri buruz sortu den dokumentazioa.

- Gainera, aurrez ezarritakoaren arabera hezkuntza-ikuskaritzaren edozein esku-hartze mota eskatu den kasuetan, erreferentziazko ikuskatzailearen txosten espezifikoa.

- Izangaiaren azken memoria, baldin eta Kalifikazio-batzordeak, zuzendariak edo erreferentziazko ikuskatzaileak berariaz eskatu badu.

- Ebazpen honen eranskinean jasotako adierazleekin zerikusia duen beste edozein dokumentazio osagarri, praktika-fasea arautzen duen araudian jasotako betekizunekin zerikusia duena edo praktiketako funtzionarioa ebaluatzeko garrantzitsutzat jotzen dena.

5.2.– Praktika-faseko kalifikazioa «gai» edo «ez gai» izango da. Praktiketako funtzionarioen kalifikazioa «Ez gai» izango da, baldin eta izangaiak ez badu finkatutako maila lortzen eranskinean ezarritako adierazle guzti-guztietan.

5.3.– «Ez gai» kalifikazioa duten praktiketako funtzionarioek, Langileak Kudeatzeko zuzendariak jakinarazi ondoren, alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte kalifikazio horren aurka, bost eguneko epean, jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 76. artikuluan ezarritakoaren arabera. Epe hori igarota, Langileak Kudeatzeko zuzendariak dagokion ebazpena emango du, eta Kalifikazio Batzordeari eta interesdunari bidaliko zaie.

Seigarrena.– Praktika-fasearen garapena eta iraupena.

6.1.– Hezkuntzako sailburuaren 2025eko otsailaren 24ko Aginduan xedatutakoaren arabera, hautatutako izangaiak irakasteko gai diren egiaztatzea da praktika-fasearen helburua. Praktika-faseak ikasturte bat iraungo du, eta, oro har, praktika-fasea bukatutzat jotzeko eta ebaluatu ahal izateko, izangaiak sei hilabete eman beharko dute zuzeneko irakaskuntzan, gutxienez 2/3ko eguneko lanaldiarekin.

Salbuespenezko kasuetan, praktiketako funtzionarioa aldi baterako ezintasun-egoeran, amatasun- edo aitatasun-lizentzian edo beste ezinbesteko kasu batean badago (ustekabeko eta saihetsezineko salbuespenezko egoera) eta egoera horrek praktika-fasea ohiko moduan gartzea eragozten badio, Kalifikazio-batzordeak baloratu eta onartu ondoren, praktikaldia gutxienez hiru hilabete eta egun batekoa izango da modu jarraituan (horietatik gutxienez 60 egun ikasgelan zuzenean edo beste hezkuntza-testuinguru batean bete beharko dira), eguneroko jardunean gutxienez 2/3ko eguneko lanaldiarekin. Kasu horietan, lehentasuna emango zaio ikuskaritza irakaskuntza-jarduna garatzeko saioen batera joateari.

6.2.– Agindu horretan aurreikusitakoa aplikatuko zaie, halaber, goragoko maila batean sailkatuta dagoen irakasleen beste kidego batera iristeko prozeduran hautatutako pertsonen eta praktika-fasea egitetik salbuesteko kasuei.

6.3.– Hautatutako pertsonen praktika-fasea egin beharko dute horretarako esleitutako destinoetan, eta hautaketa-prozesuari uko egiten diotela ulertuko da 2026-2027 ikasturteko lehen lanegunean sartzen ez badira, salbu eta 2025eko otsailaren 24ko Aginduen 13.1 oinarrian ezarritakoaren arabera praktika-fasea atzeratzea onartu bazaie edo Langileak Kudeatzeko zuzendariaren aurrean behar bezala egiaztatutako ezinbesteko arrazoiengatik ezinezkoa izan bazaie.

6.4.– Ikasturtearen lehen egunetan, ikastetxeko zuzendaritzak erreferentziazko ikuskatzaileari jakinaraziko dio –eta azken horrek, era berean, Kalifikazio-batzordeari– praktiketako funtzionarioak benetan karguaz jabetu direla, eta aditzera emango du zein den izangai bakoitzari izendatutako tutorea; horrez gain, praktika-fasearen garapenean eragina izan dezakeen inguruabarren bat jakiten badu, horren berri ere emango du.

6.5.– Praktika-fasea 2027ko ekainaren 30ean amaitzen dutenak eta ebaluazio positiboa lortzen dutenak karrerako funtzionario izendatuko dira Hezkuntzako sailburuaren dagokion izendapen-aginduen bidez. Agindu horrek 2027ko irailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

6.6.– «Ez gai» deklaraturako pertsonak praktiketako funtzionario gisa hasi beharko du lanean «ez gai» deklaratu eta hurrengo ikasturtean, eta praktika-fasea behin bakarrik errepikatu ahal izango du.

Lanean hasten ez diren edo bigarren aldiz «ez gai» deklaritzen diren pertsonen karrerako funtzionario izendatzeko eskubide guztiak galduko dituzte. Deialdia egin duen agintaritzak deklaraturako du eskubide horiek galdu direla, ebazpen arrazoitu baten bidez.

Zazpigarrena.– Langileak Kudeatzeko zuzendariari ahalmena ematen zaio praktika-fasea garatzeko beharrezkoak diren jarraibideak emateko eta ebazpen honetan berariaz aurreikusi ez diren kasu guztiak ebazteko.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 15a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO.

2026ko uztailaren 30a, osteguna

ERANSKINA

Eremuak	Gakoak	Maila ez nahikoa	Maila finkatua	Maila aurreratua
Irakaslea ikastetxean eragile	Ikastetxearen testuinguru sozioekonomiko eta kulturala	Ez ditu ezagutzen edo ez die errepikatzen eskolaren testuinguruaren ezaugarriak (familiak, eskola-kultura, ingurune fisikoa eta eremuko ballabideak).	Hezkuntza jarduera garatu behar duen testuinguruaz oinarritzko informazioa jasotzeaz arduratu eta lanerako aintzat hartzen du.	Eskolaren testuinguruaz datuetan oinarritutako analisiak jabetu da eta irakaskuntza- jarduna moldatzen du haien arabera.
	Ikastetxeko dokumentuak	Ez ditu behar beste ezagutzen ikastetxeko curriculumari, didaktikari eta antolaketari buruzko dokumentuak (IHP, programazioak, AJA, hizkuntza proiektua, etab.). Bereziki erreferentziatzen hartzen ditu irakasten dituen eremu/arlo/ikasgaiei dagozkienak.	Ikastetxeko curriculumari, didaktikari eta antolaketari buruzko dokumentuen oinarritzko ezagutza du (IHP, programazioak, AJA, hizkuntza proiektua, etab.). Bereziki erreferentziatzen hartzen ditu irakasten dituen eremu/arlo/ikasgaiei dagozkienak.	Dokumentu horietan ezarritakoa menderatzen eta aplikatzen du, eskarmentua du eta gainerako irakasleek dokumentuok ezagutzea sustatzen du.
	Euskal dimentsioa	Ez du behar adinako ardurarik erakusten euskararen erabilera sustatzeko, euskal kultura transmititzeko eta curriculumaren euskal dimentsioa bere jardun pedagogikoan txertatzeko.	Barneratuta dauka gure hezkuntza sisteman euskara ardatza dela eta, ondorioz, ardura erakusten du euskararen erabilera sustatzeko, euskal kultura transmititzeko eta bere jardun pedagogikoan curriculumaren euskal dimentsioa txertatzeko.	Horrez gain, ikasle eta lankideen aurrean eredu eta eragilea da bere ikastetxean euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzeko.
	Hizkuntza trataera	Ez du behar beste ezagutzen bere ikasleen hizkuntza-profila (etxeko hizkuntzak, erabilera, gaitasuna...). Ez du behar beste ezagutzen ikastetxearen Hizkuntza Proiektua ezta hortik eratorzen diren hizkuntza-erabaki eta -irizpide nagusiak. Ondorioz, bere jardun pedagogikoa ez dago ikasleen hizkuntza-beharretara egokituta.	Bere ikasleen hizkuntza-profilari buruzko oinarritzko informazioa ezagutzen du. Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua ezagutzen du eta hizkuntza-irizpide eta -erabaki nagusiak identifikatzen ditu. Informazio hori neurri batean kontuan hartzen du ikasleekin komunikatzeko eta jarduera pedagogikoak planifikatzeko.	Ezagutzen ditu bere ikasleen hizkuntza-profila eta ikastetxearen egoera soziolinguistikoa, eta kontuan hartzen du haiekin komunikatzeko eta jarduera pedagogikoak diseinatzeko. Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua ezagutzen du, identifikatzen ditu hortik eratorzen diren hizkuntza-erabaki eta -irizpide nagusiak, eta horiek barneratu eta aplikatzen ditu bere jardun pedagogikoan. Gainera, esku-hartze berezituak diseinatu eta aplikatzen ditu ikasleen hizkuntza-beharrei erantzuteko.
	Ikastetxeko Bizikidetzak Plana	Ez ditu aintzat hartzen Bizikidetzak planak ezartzen dituen jarraibideak.	Ikastetxeko Bizikidetzak Plana ezartzen dituen jarraibideak ikasgelara eramaten ditu eta aniztasunarekin eta inklusioarekin sentibera den ikasgiro positiboa bideratzen du.	Ikastetxeko Bizikidetzak Plana ezartzen dituen jarraibideen inguruan hobekuntzak eta proposamenak egiten ditu, bere arloko mintegian edo ikastetxean egoera konplexuak bideratzeko asmoarekin

2026ko uztailaren 30a, osteguna

Eremuak	Gakoak	Maila ez nahikoa	Maila finkatua	Maila aurreratua
Irakaslea ikastetxean eragile	Kulturartekotasuna eta eleaniztasuna	Ez du begirunerik ikasleen eta familien hizkuntza eta kultura aniztasunarekiko.	Ikaskuntza-egoerak sortzen ditu, ikasleen eta familien hizkuntza- eta kultura- baliabideak aprobetxatuz.	Ikasleen eta familien hizkuntza- eta kultura-aniztasuna aintzat hartzen ditu eta ahaleginak egiten ditu ikasgelako eta ikastetxeko indargune bihurtzen.
Irakaslea irakas- ikaskuntzaren ardurakide	Ikasleak	Ez ditu behar beste ezagutzen bere ikasleen garapen-ezaugarriak eta ezaugarri pertsonalak.	Ikasleen garapen sozial, kognitibo eta psikologikoaren ezaugarriak menderatzen ditu eta horren arabera irakas-ikaskuntza prozesuak diseinatzen ditu.	Bere ikasleen garapen unea, hizkuntza gaitasuna eta ezaugarri pertsonalak aztertzen ditu eta horien arabera irakas-ikaskuntza prozesuak pertsonalizatzen ditu
	Aurretiazko ezagutzen diagnostikoa	Ez du baliabide eta estrategia egokirik erabiltzen hautemateko ikasleen aurretiazko ezagutzak, funtsezko kompetentzien garapen-maila eta ikaskuntza-estiloak.	Ezagutzen ditu ikasleen aurretiazko ezagutzak, ikaskuntza-estiloa eta aniztasuna hautemate ahalbidetzen dioten baliabideak eta estrategiak. Laguntza behar du ezagutza horietatik irakas-jarduna abiatzeko.	Ezagutza hori erabiltzen du ikasleak motibatzeko eta beren ikaskuntza-prozesuan inplikatzeko, ikaskuntzak esanguratsu egiteko eta ikasleen garapena bermatzeko.
	Irakas-ikaskuntza-prozesuaren diseinua	Curriculum dekretuan ezarritako oinarriko elementu batzuk falta dira programazioan, edo ez dago horien arteko koherentziarik. Irakasleengan zentratutako metodologiak eta proposamen didaktikoak planifikatzen ditu.	Programazioan oinarriko elementu guztiak daude, eta koherentzia dago elementu guztien artean. Ikasleengan zentratutako metodologia eta proposamen didaktikoak planifikatzen du.	Proposamen didaktikoak taldearen eta ikasle bakoitzaren hasierako diagnostikoaren emaitzen arabera planifikatu eta doitzen ditu. Beste profesional batzuekin koordinatutako esku-hartzeak planifikatzen ditu. Metodologiaren ardatzak askotariko ikas-egoerak/erronkak eta ebaluazio-prozedura anitzak dira.
	Jarduerak	Hezkuntza praktika ez da aurretiaz planifikatzen edo ez dator bat programan ezarritakoarekin.	Hezkuntza praktika bat dator aurretiaz programan ezarritakoarekin. Jarduerak planifikatutakoaren arabera ordena logikoan burutzen dira eta kompetentziak lortzera daude bideratuta. Badaki identifikatzen zergatik eta zertarako planteatzen dituen jarduerak.	Hezkuntza praktika bat dator aurretiaz programan ezarritakoarekin, gainera mailgutasuna du ikaskuntzak esanguratsuagoak egingo dituzten, motibazioa eta ikaslearen autonomia garatuko duten egoerak aprobetxatzeko.
	Rola	Irakasleak ikasgelako jardueraren protagonistia gisa jarduten du eta ikasleek rol pasiboa dute gehienetan. Ez du sustatzen ikasleen parte-hartzea edota ikasleen arteko elkarrenergina.	Ikasleen parte-hartzea sustatzen du eta beren ezagutza- eta lan-erlitzaren arabera aurrera egiteko moduan antolatzen du lana. Ikasleen arteko elkarrenergina sustatzen du.	Ikasleak beren ikaskuntzarekiko motibatuta eta konprometituta egotea lortzen du, baita irakas-saioan aktibo egoteko autonomia-maila jakin bat garatzea ere. Ikasleek ikaskuntza-proposamenen inguruko erabakietan parte hartzea sustatzen du.

2026ko uztailaren 30a, osteguna

Eremuak	Gakoak	Maila ez nahikoa	Maila finkatua	Maila aurreratua
Irakaslea irakas- ikaskuntzaren ardurakide	Eskola saioaren egitura	Egituratu gabeko saioak egiten ditu. Ez ditu kontuan hartzen helburuak, ikasleen aniztasuna, denbora eta baliabideak.	Saioak egitura planifikatua eta logikoa du. Argi ikusten dira hasiera, garapena eta amaiera.	Ikasleei saioaren egituraren berri ematen die. Saioaren hasieran, egun horretan egingo dutena eta zein helburu duten jakinarazten die. Loturak ezartzen ditu aurreko ikaskuntzekin. Amaieran, egindakoaren eta ikasitakoaren gaineko gogoeta egiten du.
	Ongizate orokorra	Antzeko arreta ematen die ikasle guztiei, beren premiei eta ezaugarri pertsonal eta ongizateari erreparatu gabe.	Ikasle guztiekin inplikatzan da, batez ere premia akademikoko eta pertsonal handienak dituztenekin. Bidezkoak ez diren edo ikasleei ezinezona eragiten dieten egoeretan esku hartzen du. Ikasle guztien arrakastan eta ongizatean parte hartzen du.	Egiten dituen jarduketak guztiak inklusiboak dira, eta jarduketek positiboki eragiten dute ikastetxearen dinamikan. Ikasleen inklusioa, ongizatea eta garapen pertsonal, sozial eta akademikoa hobetzen lagunduko duten estrategia eta metodoak bilatu eta ezartzen ditu.
	Baliabideak	Gutxieneko baliabideak erabiltzen ditu eta ez du interesik baliabide gehigarriak erabiltzeko. Erabiltzen dituen baliabideak ez dira egokiak saioaren helburu lortzeko, ezta gelaren antolaketa ere.	Erabiltzen dituen baliabideak eta gelaren antolaketa lagungarriak dira jarduerak egiteko, saioaren helburuak lortzeko eta kompetentziak garatzeko.	Baliabideek argi eta garbi laguntzen dute ikas egoeren/erronken helburuak betetzen eta ikasle bakoitzaren kompetentziak garatzen, baita ikasleen autonomia sustatzen ere. Berdinen arteko ikaskuntza, parte-hartzea eta komunikazioa sustatzen ditu gelaren antolaketa baliatuz.
	Feedback	Ez du feedback-ik erabiltzen. Ez ditu denbora edo prozedura nahikoa erabiltzen informazioa bildu eta ikaslearen ikas-prozesuaren bilakaera jarraitzeko eta ez ditu doikuntzak egiten.	Aldian aldiko feedback- a orokorra erabiltzen du. Denbora eta prozedura nahikoa erabiltzen du informazioa bildu eta ikaslearen ikas-prozesuaren bilakaera ezaugaritzeko, eta noizean behin partzialki eraginkorra diren doikuntzak egiten ditu.	Ikasleei zuzendutako feedbacka bere ohiko praktika da, haien errendimendua hobetzeko gakoak emateko. Jardueren emaitzen gaineko gogoeta sustatzen du ikasleek beren kabuz deskubritu ditzaten egindako akatsak, eta zuzenketak egiteko. Egiten dituen doikuntzak eraginkorrak dira ikasle gehienek aurreikusitako emaitzak lor ditzaten.
	Ebaluazio irizpideak	Ebaluazioa egiteko, ez ditu ebaluazio-, kalifikazio- eta igarotze-irizpide argi, egoki eta objektiboak erabiltzen, edo irizpideak ez datoz bat ikastetxeko eta mintegiko araudiarekin eta ez dituzte kontuan hartzen ikasleen ezaugarriak.	Irakaskuntza jardunean eta ebaluazio prozesuan, ikastetxeko araudi orokor eta mintegikoarekin bat datozen ebaluazio-, kalifikazio-, eta igarotze- irizpide argiak eta zehatzak erabiltzen ditu eta kontuan hartzen ditu ikasleen ezaugarriak.	Ebaluazio irizpidetan oinarrituta gai da adierazle zehatz eta behagarriak sortzeko, eta, horri esker, ebaluazio objektiboa bermatzen du.

2026ko uztailaren 30a, osteguna

Eremuak	Gakoak	Maila ez nahikoa	Maila finkatua	Maila aurreratua
Irakaslea irakas- ikaskuntzaren ardurakide	Ebaluazio uneak eta tresnak	Oso gutxitan jasotzen du ikasleek menderatutako ikaskuntzei buruzko informazio objektibo eta sistematikoa. Funtsean, ebaluazio sumatiboa da.	Teknika ezberdinak erabiltzen ditu ikasle bakoitzak menderatutako ikaskuntzen aurrerabidea objektiboki eta sistematikoki biltzeko, etengabeko ebaluazioaren irizpideekin bat etorrita. Behatutakoaren erregistro sistematikoa egiten du.	Ebaluazioa hezigarria da. Lortu egiten du ikasleak beren indargune eta ahulgunez kontziente izatea. Beharrezkoa bada, birbideratu egiten du irakaskuntza-ikaskuntza prozesua. Ikasleei edo beren familei/tutorei hautemandako aurrerapenen edo zailtasunen berri ematen die.
	Ebaluazio prozedura	Ebaluazio-prozedura gutxiegi erabiltzen ditu edo ez dira egokiak ikasleen heziketa-mailari eta motari erreparatuta. Proba puntualak egiten ditu nagusiki, eta oharrak ere ez ditu modu sistematikoa jasotzen.	Askotariko prozedurak erabiltzen ditu (teknikak, tresnak...) ikasleen ikaskuntzak ebaluatzeko, eta bat datoz ikasgaiarekin eta ikasleen ezaugarrieekin. Bermatu egiten du objektibotasuna, eta ebaluazioaren funtzio hezigarria sustatzen du.	Autoebaluazioa, autonomia eta akatsetik abiatutako ikaskuntza sustatzeko balio duten prozedura eta tresnak erabiltzen ditu. Konpetentzien garapena neurtzen du.
	Bizikidetzatza	Zailtasunak ditu bizikidetzatza positiboa ahalbidetzeko eta ikasgelan ikaskuntza-giro egokia sortzeko estrategiak garatzeko. Lehenitasuna ematen die diziplinazko neurriei, eta ez ditu aztertzen, ikasleen adinera, ezaugarrietara eta gertatutakoaren larritasunera egokitutako beste neurri batzuk, gatazkak kudeatzen dituenean, ikasleek motibazio gutxi erakusten dutenean eta jarrera eta/edo jokabide desegokiak eta abar dituztenean. Ez ditu bere erabakiak justifikatzen. Gutxi aritzen da lankidetzan edo neurri txikian hartzen ditu aintzat irakasleen taldeak edo ikasketxeko kide anitzeko organoren batek ikasgelako bizikidetzatza kudeatzeari dagokionez hartutako erabakiak. Ez da inplikatzeko eskolako giroa hobetzera bideratutako ekintza eta programetan.	Ikaskuntza-giro egokia mantentzen du, eta bizikidetzatza positiborako estrategiak garatzen ditu. Gatazkak edo bizikidetzatza-arazoak prozedura ezberdinen bidez kudeatzen ditu, eta ez ditu bakarrik diziplinazko neurriak erabiltzen. Aintzat hartzen ditu irakasleen taldeak klasearen edo taldearen bizikidetzaren kudeaketa egokirako hartutako erabakiak, proposamenak edo irizpideak. Inplikatu egiten da bizikidetzaren aldeko jarduerak edo programetan.	Ikasgelan lan egiteko giro ona lortzen du, eta horrek errespetuan, lankidetzan eta lankidetzako ikaskuntzan oinarritutako harremanak errazten ditu. Bizikidetzatza-arazoei ikaskuntzarako eta konpetentziak garatzeko aukera gisa hartzen die. Ikasketxeko bizikidetzatza arautzen duten dokumentuen prestaketan parte hartzen du eta hobekuntzatza proposamenak egiten ditu. Ikasgelan eta ikasketxean estrategiak sustatzen ditu bizikidetzatza positiboa eta ikaskuntzatza giroa sustatzeko.

2026ko uztailaren 30a, osteguna

Eremuak	Gakoak	Maila ez nahikoa	Maila finkatua	Maila aurreratua
Irakaslea lanbidean egile	Ardurak	Uko egin dio ikastetxearen barneko kudeaketa eta koordinazioarekin zerikusia duen ardurak hartzeari.	Onartzen ditu, esleitzen gero, ikastetxearen funtzionamenduan laguntzen duten erantzukizunak.	Jarrera proaktiboa hartzen du ikastetxearen funtzionamenduan laguntzen duten erantzukizunak hartzeko.
	Kide anitzeko organoak	Ez da agertu kide den kide anitzeko organoen bileretara, eta ez du hutsegitea justifikatu. Ez ditu errespetatzen organo horien hitzarmenak edo jarraibideak.	Kide den kide anitzeko organoen bileretara bertaratu eta bete egiten ditu horri lotutako erabakiak eta jarraibideak.	Aktiboki hartzen du parte kide den kide anitzeko organoen bileretan. Modu kritiko eraikitzailean onartzen ditu ebazpen eta jarraibideak.
	Jarduera osagarriak	Ez du parte hartu irakaskuntza zuzenetik at dauden urteko planean onartutako beste jardueretan.	Ikastetxeko lanaldi aruntetan ikasgela barneko nahiz kanpoko eskola-jardueretan (jarduera osagarriak) hartzen du parte.	Aktiboki parte hartzen du ikasgela barnean eta kanpoan egiten diren eskola-jardueren antolaketa eta kudeaketa egiteko lanetan.
	Talde lana	Ez du interesik azaldu eztabaidetan, zereginetan edo talde jardueretan parte hartzeko.	Taldean lan egiten du: lankidetzan aritzen da eta jardunbideak, baliabideak, prestakuntza... partekatu eta erkatzen ditu.	Aktiboki parte hartzen du eta bere lan taldean dinamika bultzatzen ditu: kritika eraikitzaileak, aldaketarako prestutasuna, eztabaida, hezkuntza- praktika eta - baliabideak partekatzea eta erkatzea, esperimentazioa, prestakuntza...
	Prestakuntza eta ikaskuntza profesionala	Ez du prestakuntza- eta berrikuntza- jardueretan edo ikastetxeak adostutako programetan behar beste parte hartu eta ez ditu aurrera eraman gelan inplementatu beharreko erabaki adostuak.	Prestakuntza- eta berrikuntza- jardueretan edo ikastetxeak adostutako programetan parte hartzen du; ez hori bakarrik, horiek garatzen eta gauzatzen ere laguntzen du.	Erakundeak eskaintzen ez dituen ikaskuntza- aukera gehigarriak aktiboki bilatzen ditu. Baliabideak eta esperientziak partekatzen ditu lankideekin, eta lanbide- ikaskuntzako komunitateetan parte hartzen du.
	Praktikari buruzko gogoeta	Erresistentzia erakutsi du bere praktikari buruz hausnartzeko eta erabakiak aintzat hartzeko.	Bere praktikari buruzko gogoetak eta hausnarketak datuetan eta ebidentzietan oinarritu eta ahoz nahiz elkarrekintza bidez partekatzen ditu, egoera naturalean zein formaletan.	Bere praktikari buruzko gogoetak eta hausnarketak erregistratzen ditu eta hezkuntza praktika hobetzeko proposamenak egiten ditu eta besteekin konpartitzen ditu.
	Gatazkak bideratzea	Taldean sortzen diren gatazka- egoerak ez ditu bideratzen, eta ebazteko laguntzarik ez du eskatzen.	Modu positibo eta zuzenean prebenitzen eta ebazten ditu gatazkak BAT taldearekin koordinatuz.	Bitartekaritza estrategiak erabiltzen ditu eta konponbide eraikitzaile eta bideragarriak ematen ditu gatazka profesionalak eta inguruneko gatazkak ebazteko.
	Ebidentzien erabilera	Praktikaldian jasotako ebidentziak osatugabeak dira, eta ez dute esangurarik egindako lanaren garapena adierazteko. Ebidentziak aztertu gabe eta koherentziarik gabe txertatzen ditu bere lanean.	Bere praktikari buruzko datuak eta ebidentziak jaso eta aztertzen ditu, eta horren arabera birplanteatzen du bere lana.	Gai da bere praktikari buruzko azterketa modu sistematikoan eta kritikoan adierazteko, ahoz zein idatziz, ebidentziak eta bestelako iturriak erabiliz.